

Bi lurperatze

Zigor Etxaniz Errazkin

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2003



*enskar
txanpan*



Bi lurperatze

Zigor Etxaniz Errazkin

Julene Azpeitia 16. ipuin lehiaketa

2003

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Zigor Etxaniz Errazkin (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

BIGARREN LURPERATZEA

Malenkoniatsu jartzen naute gauez egindako lurperatzek. Ez da berdina egun-argiz edo gauez hiltzea, gauarekin lotzen dugu heriotza nahi gabe, ez dugu inoiz pentsatzen eguerdi batean hilko garenik, eguzkiak gogor eta alai jotzen duen momentuan, gure ezbeharrak mundu osoa tristatu behar izango balu bezala, ilundu.

Ehorzleak astiro mugitzen dira, nekaturik baleude bezala, ez du ematen, ordea, lan neketsua beraiena, bi minutu baino ez dira behar zerraldoa hobira jaisteko, baina, hala ere, patxadaz egiten dute lana, euripean. Sokak ari dira zerraldoaren azpitik pasatzen, pelikuletan bezala, antzinatik egin den modura, horixe izango da modurik onena, gauzak ondo eginda daudenean ez dira aldatu behar, bi soka, bat aurretik eta bestea atzetik, ez da besterik behar gizon bat lurperatzeko, edo emakume bat, bizitza bat, hainbeste urte eta urte horietan egindako gauza guztiak, onak eta txarrak, ezagutuak eta ezkutuak, harrotasunez egindakoak eta lotsez egindakoak, edo egin gabekoak, bi soken bidez jaisten dira zulora, gordetzen, ahazten dira, gainontzekoen oroimenean geratzen dena apurrak baino ez dira, pixkanaka lainotzen joango diren apurrak, gandutzen, azkenean apur horiek beste zulo beltz bat bete arte.

Ehorzleek jendeari azken agurra emateko denbora eskaintzen dietela dirudi, euren mugimendu lasaiekin, inork ez du presarik izaten momentu hauetan, edo bai, agian baten bat hildakoa ahazteko irrikan dago, zulora noiz jaitsiko duten zain, maite izan ez duelako, gorroto zuelako, edo, agian, hildakoarekin batera beste zerbait lurperatzen ari direlako, gehienetan inbidia izaten da beste zera hori, edo okerrago, egia, kasu honetan bezala. Hain zuzen ere, horrek egiten du tragiko samarra lurperatze hau, heriotzaren egiak, edo bizitzarenak, bizitzaren egia baita lurperatzen ari dena azaroko arrats honetan, hilotzaren egia, berarekin batera zizareak jango dutena, bizirik zegoela zekien egia, hiru pertsonen baino ez zekitena eta orain bik soilik dakitena, dakiguna, zuloaren aurrean dauden pertsona urriek ez dakite ezer, hala ere beraiantzat ere tragikoa izan da heriotza, gutxitan ez da horrela izaten, batez ere tiroz hiltzen direnen kasuetan, azken boladan tiro gehiegi dago inguru hauetan, berdin zaio egia jakin ala ez kordea galtzeko zorian dagoen emakumeari, emaztea izango da seguru asko, agure batek heltzen dio besoetatik, Alejandroren emaztea, alarguna jada, ez nuen uste hain gaztea izango zenik,

eta hain ederra, daraman soineko beltza ere ez da bere edertasuna ahultzeko gauza, sufrimenduak duintasuna ematen dio, egia jakinez gero galduko zuen duintasuna, sufrimendua bera ere gutxitu egingo zitzaion erabat, baina berak ez daki ezer, ez daki nire atzean, guztien bistatik aparte, hamar bat metrora edo, zuhaitz baten azpian dagoen beste emakume horrek dakiena, ederra hau ere, baina ez da duintasunik azaltzen bere aurpegian, eta, egia esan, ez du horretarako arrazoirik. Izatekotan, beldurra islatu beharko lukete bere aurpegi borobil leunak, bere ezpain mardulek eta bere adats horiaren kizkurrek, beharbada zuen duintasun urria galdu duelako azken egunotan, egia jakiteak kalte hori dakar askotan. Ez, lasai azaltzen da, asko pentsatzen duen emakumea dirudi, gehiegi, asko pentsatzen duten emakumeak ez omen dira gustagarri gizonezkoentzat, zer ari ote da pentsatzen bere begirada galduaren artean. Beltzez jantzitako emakumeari begira dago, Alejandroren alargunari. Duela astebete bera zen lutoz jantzirik zegoena kanposantu berberean, beharbada emakume horren luto-jantziak min egiten dio begietan edo bihotzean, eta beharbada horregatik hozkatzen ditu ezpainak noizbehinka, luto horren ardura berea balitz bezala, bi emakume lutoz zazpi egunetan gehiegitxo direla pentsatzen du agian, beti pentsatzen, ez omen zaizkigu horrelakoak gustatzen, hainbeste pentsatzen dutenak, gure kontra ari direla pentsatzen uste baitugu, baina begirada batean ez da erraza hori dena jakitea, lehenengo begiradan ez dira pentsamenduak edo burutazioak ikusten, asmatu egin behar dira.

LANA

Lehenengo begiradan gorputz ederra baino ez da ikusten, begirada urdin eta gogorra neure bulegora sartzean, orain dela hilabeteko goiz euritsu batean, ikusi dudan bakoitzean euria ari zuela iruditzen zait orain, eta bere aurkezpena, Miren du izena eta lana du niretzat, nire denbora erosi nahi du eta ez dago diru faltan, horrelako emakume batentzat kobratu gabe ere edozer gauza egingo dudala diot neure buruari, baina holako gauzak gehiegi pentsatu gabe esaten ditugu, esaldiaren esanahia aztertu gabe, edozer gauza esaterakoan ez gara konturatzen zer ari garen esaten, batek ez ditu gauzak gehiegi aztertzen kiribil horiak alde batera eta bestera dabiltzanean, begi urdin sarkorrak zeure barruan dagoen guztia ikusten dutela iruditzen zaizunean, esaten duena aditzeko ere arreta berezia jarri behar da horrelako emakume batekin, senarrari susmo txarra hartu diola esaten duenean, ziur dagoela amaranteren bat duela nonbaiten, nahiz eta frogak ez eduki seguru dagoela, emakumezkoek antzeman egiten dituztela horrelako gauzak, hainbestetan aditu dudan kontu bera aditzen dut orain bere aho zabal eta marduletik, eta moztu egin behar diodala pentsatzen dut, jada ez ditudala horrelako kasuak hartzen esan, lan gehiegi ematen dutelako, nazkagarriak direlako, gizakien miseriak agerian geratzen direlako gehienetan, neure miseriekin nahikoa dudala, baina ezin diot ezer esan eta hitz egiten jarraitzen uzten diot, hain dira leunak bere hitzak, denbora osoan neure begiak bistatik galdu gabe, bukatzen duen arte, isiltzen den arte, begirada nire gainetik kendu eta lurrera eramaten

duen arte, triste dirudi edo aktorea ona da, eta orduan esaten diot esan beharrekoak, badaudela beste detektibeak, gomendatuko diodala horrelako kasuetan gustura mugitzen den bateren bat, baina moztu egiten dit bukatu baino lehen, ezetz dio, nik egin behar dudala, egon dela beste batekin, inolako emaitzarik lortu ez duen beste batekin, eta nire izena eman ziola, onena nintzela esanez, onena naizela, eta mesedez laguntzeko, ez dakiela zer egin, ezin duela lo egin eta dudak barruak jaten dizkiola, ez badiot laguntzen bere buruaz beste egingo duela. Nork eman dion nire izena galdetzen diot, bat-batean harro sentitu naiz bere azken hitzak entzutean, horrelako emakume batek onena naizela esatean, ez didate askotan esaten horrelakorik, eta ezagutzen dudan kide baten izena ematen dit, polizi akademian ezagututakoa, Alejandrorena, ona dela esaten diot, eta berak ezin izan badu ezer lortu zaila izango dela nik ezer lortzea, zaila esan diot, ez diot ezinezkoa esan, onena naizela pentsatzen badu ez diot ideia hori burutik kenduko, beraz, zaila izango dela esan diot, atea zertxobait irekiz, esperantzaren bat utziz, esperantza txikiak diru handiarekin ordaintzen dira, eta dirua ez dela arazoa izango esan dit neure buruan irakurri izan balu bezala, mesede handia egingo niola kasua hartuko banu, mesedea benetan handia, begi urdinekin kizkur horiekin musu ederrekin mesedea eskatuz hiltzen ariko balitz bezala, barruan nukeen botoi sekreturen bat sakatu nahian, ez daki aspaldi onartu dudala bere auzia, ikusi dudanetik, bulegoan sartu denetik, ahoa ireki baino lehenago ere hartua nuela erabakia, baina ezin diot hori guztia esan, horrelako gauzak ez zaie bezeroei esaten, baietz esaten diot soilik, ados, diru kontuak ahazteko, hitz egingo dugula bukaeran, garrantzi handia du horrelako gauzak esatea, bestela lana diruagatik soilik egiten dugula pentsatzen dute, eta gehienetan berdin zait zer pentsatzen duten, egia esan, baina oraingoan ez, oraingoan inporta zait, eta bere irria erakusten dit lehenengo aldiz, bitan edo hirutan bakarrik ikusi dudan irri garbi eta zabala.

BIGARREN LURPERATZEA

Barre egiten dit kanposantuan, lutoz jantzitako alarguna ahaztuta jada, berari begira nagoela konturatu da, euri azpian, kanposantua ez dirudi leku aproposa barre egiteko, hildakoak haserretu egingo direla iruditzen zaio bati, hainbeste jende negarra eutsi ezinean dabilenean ez da irriño bat ere erakutsi behar. Ez diot irria itzultzen, ez da gehiago hurbildu nahiz eta inork ez duela ezagutuko jakin, eta ezagutuz gero ere berdin dio, inork ez du azken heriotzarekin lotuko, inork ez baitaki, nahikoa dute negar egiten eta agurtzen. Ehorzleak bukatzen ari dira bere lana, zuloa estaltzeko prest daude, apaizak azken hitzak esaten dituen bitartean, bukatzeko gogoarekin dirudite erabilitako sokak eskuetan dituztela, tximu eginda apaizaren hitzak aditzen, honezkero buruz jakingo dute hainbatetan aditutako sermoia, denek dirudite bukatzeko gogoarekin orain, eta apaizak keinua egin bezain pronto alden du egiten dira, beraien guardasolekin korrika lokatzetan kotxeen bila, alarguna bakarrik geratu da besoetatik heltzen dion agurearekin, aita izango du agian, negarrez, langileek hilobia nola estaltzen duten ikusi nahiko du, ez zuen oraindik senarra

agurtuko, ez du inoiz agurtuko, bakarrik geratu arte, langileak ere joan dira sokak eta guzti, auskalo noiz izango duten hurrengoa, akaso gaur bertan, agur egiten dio eskuarekin hilarriari, eta agureak eraman egiten du handik besotik helduta, lokatzez beteriko bidetik datoz buruz behera biak, eta nire paretik pasatzean andreak altxa egiten du begirada bat-batean, begi urdinak ditu berak ere, espresio arraroa dauka aurpegian, galdezka arituko balitz bezala, bere buruari zerbait galdezka, zergatik gertatu zait hau niri, azalpenak eskatzen bezala, ezer ulertzen ez duen espresioa, hurrengo bi edo hiru egunetan ez zaio aurpegitik joango, horrela gertatzen da beti zenbait heriotzetan, batez ere tiroz hiltzen direnen kasuetan.

Aldendu dira kotxearen bila buruz behera berriro, eta hilarrira hurbiltzen naiz, Alejandrorena, marmolean idatzi dute bere izena betirako, Alejandro Zurieta Narbarte, 1962-2000, goian bego, marmolaren azpian irudikatzen dut duela astebete zuen aurpegi berarekin, zer gertatzen ari zen jakin nahian galdezka, begiak zabal-zabalik, azalpenak eskatzen, orduan ere kanposantu honetan ginen, baina orduan Miren zen beltzez jantzirik zegoena, denbora gehiegi ari naiz pasatzen kanposantuetan azkenaldi honetan, bi lurperatze astebeteko epean, aurpegian irri maltzurra zuela hurbildu zitzaidanean, gainontzekotik aparte nengoen baina hala ere hurbildu egin zitzaidan Alejandro, inoiz ahaztuko ez dudan pauso berezi horrekin, horrelako ibilerak ez dira erraz ahazten, ia barrezka, mina eta aldi berean mespretxua bidaltzen zidan aurpegi harekin, galdezka orduan ere, galdezka aurpegiarekin eta ahoaz, larrua jo al duk galdezka, larrua jo al duk berarekin, e?, galdetzen zidala behin eta berriro, jo duk ezta, pixkanaka barrea galtzen zuen bere aurpegi gero eta tristeagoak, bai jo duk, harrapatu egin hau, bera izan duk, ezta?, iruditzen zait esaten didala orain ere marmol astunaren azpitik, zerraldoan gora begira dagoela, bere izenaren azpian betirako, barre egiten duen bitartean, baboa, harrapatuta hago, ez dakik zertan ari haizen, esaten dit, eta hi zertan ibili haiz, galdetzen diot nik ere, zertan dabil jendea, mundua erotuta dago.

LANA

Ez dakigu jendea nola bizi den, horregatik dugu lana detektibeok, mundu erdiak ez dakielako beste erdia nola bizi den, zertan dabilen, nora joaten den lanetik ateratzean, batez ere ostegunetan. Mirenek halaxe esan zidan, ostegunetan izan behar du, oso berandu ailegatzen da eta. Osteguna da eta egunero bezala nabil Mirenen senarraren atzetik, kotxean segika, euria gogor ari du, ditzosozko klima ozeanikoa, erruedek ur-zorrotadak altxatzen dituzte kotxeen atzealdeetan, eguneroko bide berdina ari da egiten baina Pio XII.era iristean rotondari ia buelta osoa eman eta eskuinera utzi du etxeko bidea, agian arrazoia izango du Mirenek, osteguna da eta ez du etxeko bidea hartu, izkina batean geratu du kotxea, argiak kendu gabe, ez da luzaroan egongo, gizon bat agertzen da beste aldeko espaloitik, gabardina batekin jantzirik gurutzatzen du errepidea korrika, ezaguna egiten zaidan korrika horrekin, nonbaiten ikusi dut lehen ere, horrelako ibilerak ez dira erraz ahazten, eskuineko atea ireki eta kotxean sartu da azkar euritik ihes, besoa pasa dio bizkarretik Mirenen senarrari, burua heldu dio eta bereganara erakarri du, euri artean ikusten

dut muxu nola ematen dion, muxu luze bat, besoa kendu dio bizkarretik, intermitentea piztu da eta errepidera atera dira berriro, segika jarraitu behar dut, segika nahiz eta dagoeneko jakin behar nuena jakin, ez du gehiegi inporta nora doazen, hotel txiki batera, agian, edo bestearen pisura, auskalo non bizi den, ez du batere inporta, barrezka hasi naiz Mirenekin gogoratzean, barrezka ni onena naizelako eta bere susmoa egia zelako, lana bete dudalako eta dirua kobratu gabe ere berdin egingo nuelako. Barrezka ari naiz baina horrelako gauzak ez dira barrezka esaten, kontu handirekin esan behar dira, esaldi neutralen bidez esan behar dira horrelako gauzak, aurpegi serioa jarriz bezeroari arrazoia emanez, horrela errazago egiten baitzaio, arrazoia zenuen, andrea, zure susmoa egia zen, emakumezkoek antzeman egiten omen dituzue horrelako gauzak, gaitasuna omen duzue, agian senarrek ohiturak bat-batean aldatzen dituztelako, berandu heltzen direlako etxera edo usain ezezagun batez inguraturik sartzten direlako ohean, emakumezkoek oso sudur ona duzue perfumeentzako, edo agian senarrak inoiz baino maitekorragoak bihurtzen direlako, gauza benetan arraroa, batez ere ezkontzaren lehenengo urteak ez badira, kontzientzia alatzten baitzaie amorantearekin arratsalde pasatu eta gero, emazteari eskainitako laztan inflazioak kontzientzia garbituko dielakoan, baina ez du ezertarako balio, eta zuk arrazoia zenuen, andrea, amorante bat du zure senarrak, eta egia esan hori ez da hain zaila esaten, ez da gehiegi harritu, ez zaio aurpegia aldatu behintzat, lasai ikusten dut, niri zuzen begira, bere galderen zain nago baina ez dirudi hitz egiteko asmoa duenik, gehienetan negarrez hasten dira neure aurrean eta zain egon behar dut lasaitzen diren arte, besteetan galderak egiten hasten dira, nor da, non ikusi dituzu, nolakoa da, ni baino politagoa al da, eta abar. Baina Miren niri begira dago ezer esan gabe, beharbada susmoa baino zerbait gehiago zuelako, ia seguru zegoelako, eta badakielako erabat zaila dela bera baino emakume ederragorik aurkitzea inon, horrelaxe geratzen gara, elkarri begira, ahoa ireki eta hitz egiten duen arte, zergatik ez dugu elkarrizketa tabernaren batean jarraitzen, zerbait hartzeko gogoak dut, zer esaten duzu, zer esango dut ba, nola ez naiz joango zurekin taberna batera, edo zuk nahi duzun lekura, maitia, zuregatik edozer gauza egiteko prest nago, badakizu, badakizu onena naizela eta ez dizudala kale egin, ez diot hau guztia esan, pentsatu egin dut soilik, baina berak badaki horixe ari naizela pentsatzen. Batzuetan zaila izaten da zenbait gauza esatea, nahiz eta taberna batean egon eta kafetxea konpainia ederrean hartu, nahiz eta gero egun osoa berarekin pasatu eta gaua ere bai, nahiz eta maitasuna sortu eta harremana estutu, zaila izaten da zenbait gauza esatea, zenbait egi ez dira ahotik ateratzeko prest izaten inoiz, batzuetan momentua iritsi dela dirudi, ohean zigarrotxoa erretzen ari garela, maindireen zimur gozoak gogoan ditugula, mundua garbia eta bizitza ederra ikusten dugunean, hitz egitea pentsatzen dut horrelakoetan, egia esatea, ahotik ateratzea kostatzen den egia, ez dizut guztia esan, maitia, zuk arrazoia zenuen, amorantea du zure senarrak, eta zaude lasai, ez da zu baino ederragoa, hori ez da batere erraza, badakizu, ez, ez da zu bezain polita, egia esan, ni baino politagoa ere ez da, eta hori ez da hain zaila, ulertzen didazu, ezta, maitia, ni baino politagoa ere ez da, ez nekien nola esan, barka nazazu baina ez zait horrelakorik inoiz gertatu, ez dakit holako gauzak nola esaten diren, eta zuri gutxiago, maitia, ez zaitez nirekin haserretu, azken finean, orain berdin dio, ezta, orain gustura gaude biok, ez duzu senarraren beharrik orain, nirekin zaude, eta ni onena naiz, ez ezazu ahaztu, zuk esan zenidan, maitia, ni naiz onena eta orain ondo gaude biok, baina pentsamenduan bakarrik hitz egiten diot, azken

momentuan ezin dut ahoa ireki bere erantzunaren beldur naizelako, bere aurpegiaren beldur egia jakiten duenean, egia osoa, baztertuko didan beldurrez, orain ondo nago, ondo nago eta ez dut egoera aldatu nahi, hobe izango da hurrengorako uztea, datorren asterako, bai, datorren astean esango diot, ordurako gauzak lasaituko dira eta orduan izango da momentua, hurrengo astean.

LEHENENGO LURPERATZEA

Gauzak ez dira inoiz guk uste bezala gertatzen, alferrikakoak izaten dira gure planak eta egitasmoak, alferrikakoak desioak eta nahiak. Ezin esan aste berri honetan egoerak onera egin duenik, egia esan, zeharo okertu dela esango nuke. Kanposantuan nago eta kanposantuetan gehienetan egoera ez da alai izaten, Miren beltzez jantzirik dago lurrean egindako zulo luze baten aurrean eta jendea du inguruan, zer ote dabil Mirenen buruan, alarguna jada, senarra lurperatzen ari direla ikustean, egun gutxi dira senarrari segika aritu naizela kotxean eta orain hilik dago, bat-batean hildako senarra, tiroz hiltzen direnak bat-batean hiltzen dira gehienetan, heriotza azkarra izan omen da, bi balazo sartu dizkiote bularrean, ez dakite nor izan den, inork ez daki ezer.

Mireni begira nago, bere aurpegiak erakutsi beharko lukeen tristeziaren bila, malkoen bila, begira eta begira nabil burua bueltaka dudan bitartean, pentsatzen, batzuetan beldurra ematen du zenbait gauza pentsatzeak, egia pentsatzeak, susmoak sortzen dira edozein tokitik, neure kasuan ere susmoak baino gehiago direla iruditzen zait, galderak egin behar dira batzuetan baina beldurra ematen du erantzunak, atzeratu egiten dugu momentua eta datorren asterako uzten dugu, eta gero ahaztu egiten ditugu, zulo beltzean sartzen ditugu, Mirenen senarra sartzen ari diren bezala, gizon bat hurbiltzen zaidanean, Mirenen inguruan zegoen multzotik atera eta niregana dator. Berehala ezagutu dut bere ibilera berezia, urte askotan ikusi nuen ia egunero polizi akademian, holako ibilerak ez dira erraz ahazten, niregana dator ia barrezka, minez eta aldi berean mespretxuz beteriko bere aurpegi borobilarekin, nire parean gelditu da eta Mireni begiratzen dio berak ere, irria areagotzen zaionean, kanposantuetan irriak tokiz kanpo daudela esateko gogoia daukat, baina ez diot ezer esaten, bera da hitz egiten duena, gustura dagoela dirudi, nik ezer esan gabe hasi zait hitz egiten, jo duk ezta, barrea pixkanaka galtzen duen bitartean, aurpegia tristeziak betetzen zaio, bera izan duk, ezta, baboa, dio Mireni begiratu, ehorzleek bukatu dute bere lana eta apaizaren azken hitzak aditzen dituzte sokak eskuetan dituztela, beste mundura joateko txartelak eskuetan korapilaturik, ez dakik zertan ari haizen, irri maltzurak alde egin dio dagoeneko, harrapatu egin hau, eta jendea badoa poliki-poliki, handik desagertzeko gogoia dutela dirudite, Miren bakarrik geratu da hilarriaren aurrean, bere tristuraren bila nabil, eta malkoen bila, eta hi zertan ibili haiz, galdetzen diot Alejandrori, isilik geratu dela ikustean, agian esan dizkit esan beharreko guztiak, baina ez, oraindik ere badu esatekorik, eskatzekorik, egiak asko balio baitu, lehen ere ona zen Alejandro negozioetarako, gaztetan ezagutu nuenean, horretan ez da batere aldatu, ez du abildadea galdu, eta negozioa agerian dagoela ikusi du kanposantuan negarrik egiten ez duen

alarguna aurkitzean, eta alargunari hain serio begira ni aurkitzean, Alex beti izan da azkarra gauza horietako, eta prezioa esan dit buelta eman eta alde egin aurretik, bere ibilera jakin horrekin, horrelakoak ez dira erraz ahazten, egiaren prezioa, denak du prezioa mundu honetan eta denagatik ordaindu behar dugu zerbait, baina modu asko daude ordaintzeko, bizitza osoa egia gordinarekin bizitzea ere ordaintzeko modu bat da, agian niri tokatu zaidana, baina Alejandrok dirua nahiago duela esango nuke, bai horixe, asko gustatzen zaio dirua, bestela ez zidan horrenbesteko zenbakia esango, eta Mirenengana noa, agian hurbilagotik malkoak aurkituko dizkiot, ez dakit ikusi nahi ditudan ala ez, uste dut ezetz, ez dudala tristura ikusi nahi bere aurpegian, nahiz eta horrek esan nahi duena jakin, nahiz eta horrek egia baieztatu. Nahiz eta egia jakin beti geratzen zaigu duda-izpiren bat, eta horri heltzen diogu, gogorra da batere dudarik gabe bizitzea, egia gordinak ezagutzea, eta zaila egiak betirako gordetzea, garesti suertatzen da hori.

LANA

Guri ere ez zaigu merke aterako, pentsatzen dugu beste kafetxo bat hartzen dugun bitartean, beste taberna batean. Hainbeste gauza hitz egiten dira tabernetan, hainbeste bizitza erabakitzen garagardoa edaten dugun bitartean, erabaki batzuk ez dira errazak hartzen, bati iruditzen zaio horrelako gauzak ez direla tabernetan erabaki behar, ez dira negozio normalak, bizitza eman edo bizitza kendu erabakitzean mikaztu egiten da garagardoa, ez du betiko gustua eta usaina, heriotzak aldatu egiten ditu bizitzaren usainak, hiltzear gaudenean bizitzan ezkututzen ditugun usainak azaltzen dira, ezin da gorputza menderatu, giharrak bere kasa ibiltzen dira, buruak dioenari kasurik egin gabe, beldurrak menperatzen gaitu hiltzear gaudenean, pistolaren begi beltza guri begira ikusten dugunean, lurtean eserita besoa niregana luzatuta, pixak eta kakak agerian dituela, Alejandro errukia eskatzen, batzuetan isiltasuna saldu nahi duenak errukia erosi nahi izaten du besteetan, horrelakoa izaten da bizitza, korapilotsua eta bihurtuz betea, dena ederki lotuta daukazula uste duzunean egia azaltzen zaizu kale ilun batean eskuetan pistola bat duela eta zikindu egiten dituzu galtzak, Alejandrok zikindu dituen bezala, lurtean dagoela errukia eskatzen, isiltzeko diot baina ez dit aditzen, izututa dago eta negarrez bere ahotik hitz jario dardartia irteten den bitartean, isildu hadi, baina ezin du, ezin dio nire begiradari eutsi, itxi egin ditu begiak eta negar-zotinka dabil, gero eta gehiago, gero eta sakonago, eta bat-batean, begiak ireki gabe, harrapatu egin hau esan dit, pistola buruaren albo batean ipini eta tiro egingo diot eta egia esan dit, bere burua hilik ikusten duenean egia esaten du beti jendeak, momentu horretan ezin dira gezurrak mantendu, daukagun guztia ateratzen dugu kanpora, harrapatu egin hau, badakigu hortik aurrera ez digutela ezertarako balio izango gezurrak eta egiak, beldurrak eta adorea, errukiak eta maltzurkeriak, kakak eta pixak, gorputzaren kiratsa inguruan zabalduz lurtean etzanda nire azpian, oraindik ahoa irekirik, espresio arraro hori geratu zaio aurpegian, gertatzen ari dena jakin nahi balu bezala, zergatik gertatu zait hau niri, azalpenak eskatzen bezala, begiak zabal-zabal dituela, itxi egiten zaizkio begiak hildakoei, bestela gure zain baleude gisa geratzen baitira, gure erantzunen zain, egien zain, betirako galdezka.

BIGARREN LURPERATZEA

Galdezka irudikatzen dut orain ere Alejandro, barrezka galdetzen marmolean idatziriko bere izenaren azpian, jo duk ezta, begiak irekiak ditu berriro baina orain ezin dizkiot itxi, hilarriaren azpian zerraldoaren barruan kakak eta pixak dagoeneko garbituak, txukunduta bera izan duk ezta galdetuz, Miren atzetik aterkiarekin hurbiltzen zaidanean, joateko irrikan dago, orain ez dago presarik ordea, orain bakarrik gaude biok zu eta ni eta onena naiz, berdinak gara biok, hileta bana sortu dugu eta gorputzak nola lurperatzen dituzten ikustera etorri gara biok, egia nola lurperatzen den ikustera, baina larruz ordaindu beharko dugu egiarekin bizitzea, horrelako gauzak ordaindu egiten baitira, ni hasi naiz ordaintzen, lehen hiruk genekiena orain bik soilik dakigu, hiruen artean jasaten genuen egiaren zama bien artean daramagu orain, besteak nahikoa du gainean bota dioten lurraren pisuarekin, begiak itxi beharko lituzke gainean hainbeste lurra edukita, eta ahoa.

Besotik heldu dit Mirenek eta bagoaz, etengabeko euriaren azpian lokaztutako kanposantuan, gu ere lokaztuta kanpotik eta barrutik, harrapatu egin hau, barruko zikinkeria zailagoa da garbitzen kanpokoa baino, zikin batzuk ezin dira garbitu inoiz.